

# KULTUR ANIZTASUNA

ORDIZIAKO PAT ( 2000-2001 ikasturtea)

## **AURKIBIDEA**

### 0- SARRERA

#### 1- ANTOLAKETARI BEGIRA:

- 1-Ikaslearen errealitatea ezagutu
- 2-Jatorrizko kultura ezagutu.
- 3-Noiz datorren kontutan hartu.
- 4-Maila erabakitzerakoan.
- 5-Tutorea edo erreferentea.
- 6-Laguntzak.
- 7-Harrera
- 8-Baliabideak.

### 2- CURRICULUMARI BEGIRA

- 1-Hizkuntzaren inguruan erabakiak
- 2-Materiala.
- 3-Metodologia.

### 3- BIBLIOGRAFIA

**0-SARRERA:**

Azken urte hauetan gure bailaran ikasle etorkinen kasuak ugaltzen hasiak direla ohartuz, gure PATak honen inguruan hausnartu eta ondorio batzuetara heldu nahian, aholkulari taldeak gai honen inguruan idatzitakoa aztertzeari eta lantzeari ekin dio. Horren ondorioz, txosten idatzi hau burutu da, beti ere, une honetatik abiatuta eta edozein idatzik bezala hobetu daitekeela jakinaz.

Lehenik eta behin, gure zalantzak antolaketa eta curriculumaren inguruan oinarritu genituen txosten honen ardatz bezala hartuz.

Lan honek, ikaslea ikastetxean dagoen unetik du abiapuntua eta ez ikastetxera heldu aurretik zein trataera eman beharko litzaiokeen; beraz, hemen ez dugu aztertuko ikastetxe batean edo bestean edo desberdinetan banatu behar ditugun nahiz eta jakin ikastetxe askoren kezka dugula.

Gure zonaldeko irakasleen formazio lanetan eta dagokigun arduratik prestakuntza bultzatu nahian ahalegindu beharko dugu, izan ere epe laburreko etorkizunean gizarte kultur anitz batean jardun beharko dugu. Beraz bai irakasleak, bai ikasleak eta bai aholkulariok horrelako gizarte batean bizi ahal izateko prestatu beharrean gaude. Aniztasun kultural eta etnikoa gure gizartearen ezaugarri bat da eta era berean, hezkuntza sistemarena.

Gelan ikasle etorkinak izatea ez genuke bizi behar arazo larri bat bezala, ezaugarri desberdinak dituzten ikasleak bezala baizik, eta ondoren ahalik eta ondoen erantzuten ahalegindu. Garai batean zailtasunak dituzten haurrak (down sindromeakoak,...) geletan sartu zirenean, antzeko egoera suertatu zen, irakasleek ez zekiten nondik hasi eta denborarekin erantzun hobea ematen joan gara. Gaur, antzeko egoera batean gaude. Orain arte horrelako ezaugarriak izan dituzten ikasleak ez ditugu gelan izan baina hemendik aurrera izango ditugu; beraz, saia gaitezen prestatzen erantzun hobea emateko, kontuan hartuz, prozesu honetan hainbat aldagaik lagun dezakeela egoera hobetzen.

Gai honen inguruan, askotan gure gizarte eredura egokitu nahi izan ditugu etorkinak beren jatorria ahaztuz, asimilazio prozesu bat bultzatuz. Baina, agian, bide hori jorratu beharrean kultur anitzen hezkuntza (educación intercultural) bultzatzeak izan beharko luke bidea. Elkar laguntzak, aniztasunetik ikusita, ez du inoiz asimilazioaren zerbitzura egon behar; jarrera positiboak bultzatu behar ditu norberak, bere identitatea landuz, denak parte hartzaile sentitzen diren talde proiektu bat negoziatu ahal izateko, eta beraz, integratua sentitzeko.

*“Tres condiciones son necesarias para la integración de alguien en un grupo. En primer lugar, deben existir expectativas positivas por ambas partes. En segundo lugar, debe garantizarse la comunicación. Finalmente, el grupo debe cumplir su función propia para con todos sus miembros. Cuando falta alguna de estas condiciones, la integración es problemática.” (T. Marba )<sup>1</sup>*

Etorkinek beren kultura mantentzeko eskubide osoa dute, gurea errespetatzea bidezkoa den bezala euren ere hala egin beharko genuke. Beraiengandik badugu guk ere zer ikasi, jakin beharko genuke gu geu ere aberasten. Ikuspegi eraikitzailearen teoria harira ekarriz bakoitzak berarekin dakarrena kontutan hartu beharko litzateke; norberak dakarrena ezagutu, errespetatu, baloratu eta integratu, ikasleen garapen akademikoa hobea izan dadin. Ez du esanahi besteengandik datorren guztia onartu behar denik, baizik eta aspektu positiboak ezagutu, txertatu eta “egiteko modu berriak” elkarrekin eraiki.

Eskolak beti izan du zailtasunen aurrean laguntza anitza emateko aukera, eta ikasle hauengan konpentsazio lana egin beharra dauka, ez baitute erraztasun eta aukera berdina izango euren ikasketa prozesuan.

Ikaslearen garapenean kontextuak edo testuinguruak duen garrantzia kontutan hartuz, kasu hauek arreta gehiago eskatzen dute. Gainera, ezin dugu alde batera utzi, herri aldatzeak edo emigrazioak badituela zenbait ezaugarri, eta hauek ezagutzea ezinbestekoa dela, eskolan duten eraginagatik.

---

<sup>1</sup> “Enseñar lengua a niños inmigrantes” Textos 23

- Alde batetik talde homogeneousak sortzeko joera izaten dute, jaioterriaren edo ezagunak inguruan izatearen arabera.
- Kontutan hartu behar da maila desberdinetako mendebalkuntza ( okzidentalizazioa) dutela, batzuk beren ezaugarri guztiak mantentzen dituzte eta beste batzuk ez.
- Hizkuntza desberdinak hitz egin ditzakete.
- Haur asko hemen jaioak dira.
- Batzuk eskolan ibiliak izan daitezke eta beste batzuk berriz inoiz ez.
- Legalki ere egoera oso desberdinak eman daitezke, batzuk legez kanpoko kasuak tarteko.

Azken finean, “kalitatezko irakaskuntza” batean txertatu beharko ditugu talde hauetako kultur osagaiak; horregatik, eskolak taberna bateko kafe makina bezala jokatu behar du, bezero bakoitzari beharko luken kafea eskaini beharko lioke.

## ① ANTOLAKETARI BEGIRA hainbat ideia

Ondo legoke ikastetxe bakoitzak “*Proyecto de Educación y convivencia*” edo “*Elkarbizitza eta Hezkuntza Proiektua*”- ren bat izatea. Hau da Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barnean elkarbizitzaren atalean gai hau landuta egon daiteke, non marko zabala non helburu orokorrak eta abiapuntuak leudeke.

Hona hemen antolaketari begira eman daitezken pausuak, beti ere kontutan hartuz antolaketa zenbat eta malguagoa izan, irakasle eta ikasleen mugimenduak erraztuz, orduan eta errazago bideratu ahal izango dugula prozesua:

### 1. Lehenik eta behin, **ikaslearen errealitatea ezagutu**<sup>2</sup>:

- Noizbait eskolan ibili den edo ez .
- Nondik datorren, zenbat hizkuntza hitz egiten dituen, zein den bere ama hizkuntza, etxeko hizkuntza, bere hizkuntzan alfabetatua dagoen, ...

*“...será conveniente :- Preguntarles sobre sus lenguas, mostrando verdadero interés por ellas. - Intentar establecer las habilidades de cada niño en su lengua. –tratar de averiguar si saben leer y escribir, y a qué nivel. – Preguntarles si saben hablar, leer y escribir en otras lenguas.”*<sup>3</sup>

- Hemen jaioa den edo hemendik kanpo; eta beraz hemengo hizkuntza hitz egiten duen.
- Familiaren egoera ezagutu: denbora batez dauden, legalak, estruktura...

2. **Ikaslearen jatorrizko kultura ezagutzen saiatu** ahal diren errekurtsu guztiekin ( PAT, herriko elkarteak...) eta ikastetxeen artean esperientziak trukatu. Etorkinen artean dagoen kultur aniztasuna kontutan hartu behar dugu, ezin baitugu jokatu denak berdinak balira bezala, batzuetan gure usteak ez datoz bat errealitatearekin, guztiok baititugu zuzen eta okerreko aurreiritziak.

<sup>2</sup> Tolosako galdekizuna adibidea.

<sup>3</sup> Textos 23 *Educar a Rahalia* D, Martín

Hona hemen adibide gisa *magrebiarren* kasuan aurki ditzakegun ezberdintasun soziokultural nabarmen batzuk (ikus Abadiñoko esperientzia)<sup>4</sup>:

- *Emakumetasunarekin erlazioatuak*: Irakaslea gizonezkoa bada eta ikaslea emakumea, gaizki ikusia egon daiteke bere familian. Txango guztietara joaten badira ere, debekatua dute igerilekura joatea, egun batzuetako irteeretara edo udalekuetara.
- *Intimidade kontzeptua*: Haur hauek ez dute aurpegia margotzen. Besteen arropak jantzi, ispiluan begiratu, dantza... egin dezakete, baina bakarrik daudenean, beren gelakideen aurrean ez dira ausartzen.
- *Errealitate zentzuaren gaizki ulertuak*: Gure ohiturak ulertzeko ezinbestekoa da zenbait pertsonaien berri ematea (Olentzaro, Erregeak...); baina kontu handia izan behar da hauek azaltzeko garaian, minduta sentitu baitaitezke “gezurrezkoak” direla jakitean.
- *Janariarekin erlazioatutako tabuak*: Jangelan geratuz gero kontutan hartu beharko dugu txerrikirik ez dutela jaten eta beraientzat txerria guretzat arratoiak sortzen digun iguna sortzen diela.
- *Barrearen balio desberdina*: Osagai emozionala ezinbestekoa da emaitza onak lortzeko edozein arlotan, eta gehiago hizkuntza arloan. Beraz, gaizki ulertuak egon ez daitezen, irribarre egiten dugunean, ondo ulertu behar dute zergatik ari garen, euren kulturaren beste esanahi bat baitu.
- *Erljiioak duen papera ezin dugu inola ere ahaztu*. Neurri handi batean *arazo* askoren muina eta zergatia bertan dago.

3. **Noiz datorren kontuan hartu**: aurrez datorrela jakinez gero, denbora gehiago dago prestakuntza egiteko; hala ere, normalean ez da hala gertatzen. Gainera, kontuan hartu behar da, antolatzerakoan ez dela berdina kurtso hasieran edo erdialdean etortzea.

4. **Zein ikas mailatan sartu erabakitzerakoan**:

- Orain arte irakurritakoaren arabera, egokiena adinagatik dagokion gelan sartzea izango litzateke<sup>5</sup>, bai bere estimari begira eta bai bere kideekin txikiagoekin baino gehiago ikasten baitu. Hala ere, hau egiteko **zenbait irizpide hartu** beharko lirateke kontutan ezin baita arau bezala hartu.

-adina; maila baxuagoan sartzeak zer suposatuko liokeen

<sup>4</sup> Articles 8 *Plurilingüismo y biculturalismo en un programa de inmersión* M.Larrañaga eta U.Ruiz Bikandi

<sup>5</sup> I, Vila *Inmigración, educación y lengua propia* 1999

baloratu behar da ( 14 urteko neska bat 12 urteko mutilen gelan, ez da 7 urtekoa 6koekin jartzea bezala).  
-gelaren egoera\_( taldearen jarrera, ezaugarriak, ikasle kopurua eta sortu daitezken arazoak...)  
- ikaslearen egoera (alfabetatua, eskolan ibilia, heldutasuna...).  
- irakaslearen prestakuntza, laguntzeko aukera, jarrera,...

5. Zein da bere tutorea edo **erreferentzia ikastetxean**. Gai hau harrerarekin oso lotua dago eta ikastetxe bakoitzak bere egoeratik erantzun beharko du 4. Puntuari aipatutako kontutan hartuz ( nolakoa den gela, tutore horri suposatzen dion lana...). Kasu batzuetan tutorea izan daiteke errefortzua ematen dion irakaslea, baina gai hau ikastetxe guztian edo gutxienez zuzendaritzaz gain beste irakasle talde batean ( zikloan, BPan...) hitz egitekoa da.

*“ Cuando los profesores de la escuela primaria trabajan con niños pertenecientes a minorías lingüísticas tienen dos responsabilidades. La primera de ellas es considerar qué ( en particular en el curriculum) están enseñando a los niños y cómo todo esto está influido por el contexto social más amplio. ...tener en cuenta la relación entre los valores que asigna la escuela a los alumnos bilingües y los resultados obtenidos por éstos. Si el sistema de valores no refleja la diversidad de culturas, de aprendizaje y de lenguas, los alumnos de minorías lingüísticas tendrán más dificultades para llegar a buen fin.*

*En segundo lugar, el profesor debe detectar las necesidades lingüísticas y de aprendizaje de los niños así como proporcionar la ayuda necesaria”.*<sup>6</sup>

6. Hasieran esan dugu eskolak konpentsatze lana egin behar duela, ikus dezagun zein motatako **laguntzak** beharko dituzten ikasle hauek. Izan ere hauek epe luzerako izan beharko dute.



Hona hemen IDCtik bidalitako *barneko borradoreak* gai honen inguruan honela dioena:

▪ 3, 4, 5 edo 6 urterekin eskolaratzerakoan.

Garai honetan eskolaratzea gertatutakoan ez du ematen dagokion gelaz kanpo ezer antolatu beharko litzakeenik, dena den kontutan hartu beharko dugu curriculumean, metodologian eta eguneroko zereginetan.

Ikaslea bere taldearekin ahal den eta denbora gehien igarotzea proposatzen da, baina 5 eta 6 urtekoen kasuan gelaz kanpo ordu batzuk lagungarri gisa lantzea ere komenigarria izan daiteke batez ere eskolako hizkuntzen jabekuntzan.

▪ Lehen hezkuntzako bigarren zikloan eskolaratuz gero.

Ikaslea dagokion gelan sartzea komeniko litzateke. Ikastetxean taldeak antola daitezke eskolako hizkuntzak ikasteko. Gutxi gora behera 10 bat ordu landu ditzake gelaz kanpo, beti eskolaren antolaketaren arabera. Ikaslea aurrera doan heinean ordu hauek murriztuz joan daitezke. Bestalde ikastetxean ikasle taldeaz gain irakasle taldeak sortzea komeni da etorkin hauen jarraipena egin dadin.

▪ Bigarren hezkuntzan bukaeran etorriz gero.

Kasu honetan ikastetxeko egonaldia lan esparruarekin tartekatzea izango litzateke egokiena.

□ Nork eskaini beharko lituzke? PTaren lana al da? (ACIrik ez dagokio

Berez, hala ere agian arloen jarraipenerako beharko du) :

*“ No se puede considerar que un niño tiene dificultades en el aprendizaje sólo porque la lengua ...en la que se encuentra inmersa o en la que se le enseña es distinta de la lengua ...que siempre ha hablado en sus casa” Ley de Educación de 1981<sup>7</sup>*

---

<sup>6</sup> D, Martín *Educar a Rahalia* Textos 23

<sup>7</sup> Textos 23, “*Educar a Rahalia*” D.Martín ( 37.orrialdea)

- Kontuan hartuz, taldeko elkarrizketa maila bi urtetan har dezakeela eta hizkuntza akademiko maila egokia 5 urtetan, hizkuntzan laguntza beharko du.
  - Integrazioa lortu ahal izateko, ezinbestekoa da apoio emozionala. Taldean integratzeko laguntzak. Harreman sozialak eta komunikazioa lortzeko bideratuak.
  - Batzorde pedagogikoaren laguntza bultzatu behar da.
  - Hizkuntzaz gain ikasketarako laguntzak behar ditzake.
  - Apoio bisualak oso garrantzitsuak dira, asko kontestualizatu behar da hobeto ulertu dadin. METODOLOGIA
  - Kideen laguntza ezinbestekoa da ondo integratu ahal izateko.
  - Gelako eta ikastetxeko giroak zerikusi handia du; ikaslearen autoestima bultzatzen saiatu behar da (zer duen gustuko eta baloratu...) eta mezu positiboak bidali, estereotipoak eta aurreiritziak alde batera utziz.
  - Ikasle hauek dakartena ezagutu, ulertu eta onartzen ahalegindu behar da.
  - Gela zubia? Noiz arte? Non kokatua? Zertarako?
  - Kontuan hartu beharrekoa da alor guztietako irakasleak, hizkuntza irakasleak direla.
- Laguntzak gelan, kanpoan?

Ahal den neurrian gela barnean edo talde baten barnean lana egin, nahiz eta zenbait ekintza edo laguntza bakarka jaso. Errefortzua gela barnean izatea oso garrantzitsua da, kideekin denbora gehiago egonez, integrazio on baterako aukera gehiago izango ditu, eta adibidez, patioan, soinketan, tailerretan... beste guztiekin batera egoteko aukera gehiago; azken finean, helburua taldeko partaide sentitzea baita.

Gelatik kanpo pasatzen badute denbora gehiena, testuingurua galtzen dute. Horregatik, ordu zehatz hauetan ematen zaien laguntza hizkuntzan eta laguntza emozionalean zentratu daiteke, bakarkako tutoretzak garrantzia hartuz.

Hau aurrera eramateko, irakasleen inplikazioa lortu behar da; arloko irakasleak gaia nola landu pentsatu beharko dute, denen artean adostu zein minimo eskatuko zaizkien... Guzti honek eskatzen dituen koordinazio orduak ahaztu gabe, noski.

## 7. Ikaslearen harrerari<sup>8</sup> buruz :

Harrera plana oso garrantzitsua da eta Bizikidetza Proiektuan kontutan hartu beharko litzateke. Harrera plana, ikasle hauek dituzten beharrei erantzuna emango dien antolaketa tresna litzateke.

Harrera egokia egiteak gerora bidea erraztuko baitigu. Azken finean, gure bi urteko haurrak lehendabiziko aldiz eskolaratzerakoan kontutan hartzen badugu zergatik ez beste lurralde batetik etorritako ikasle hauen kasuan? Kasu hauen aurrean ikastetxean prozedura finkatuz gero, lana erraztuko litzateke. Zenbait ikastetxetan, ikasle arduradun bat izendatzen dute ikasle berri honi lagun diezaion eta era berean erreferentzia izan dezan. Hona hemen zenbait ideia:

### *A- Ikastetxe mailan*

- ❑ Ikastetxea ezagutzeko ibilalditxo bat egin.
- ❑ Ongi etorri kartelak egon daitezke, ikastetxean hitz egiten diren hizkuntza guztietan.
- ❑ Langile guztiek era egokian egin beharko lioke harrera.
- ❑ Beharrezko bada, itzultzaile baten laguntza jaso.
- ❑ Denbora eta espazio egokiak aurkitu familia eta ikaslea ezagutzeko.
- ❑ Oinarrizko informazioa eskaini: eskola egun baten iraupena eta antolaketa, zer eraman behar duen eskolara, oporrak...
- ❑ Eskolako guraso berri hauekin harreman onak hasieratik bideratzea komeniko litzateke. Gurasoen Elkarteak kontutan hartu, guraso hauek ere partaide senti daitezke. Bestalde, etxekoekin harremanak bultzatu beharko ditugu ( Adibidea; islamiar familietan irakaslea joaten da etxera eta ez alderantziz).
- ❑ Ikasleari oinarrizko materialak eman (arkatzak, koadernoak...)
- ❑ Ama hizkuntza etxean erabiltzera bultzatu, honen garapenak, neurri handi batean, 2.H. lortzen lagunduko baitio. Eskolan ere, bere jatorrizko hizkuntza onartu beharko litzateke. Hizkuntzen aniztasuna gizakion aberastasuna dela ez genuke ahaztu behar.

---

<sup>8</sup> Mari Jose Eguzkizaren txostena

Beren ama hizkuntza ikasten jarraitu dezaketen lekuen informazioa eman, eta aurkitu ditzaketen apoio motena.

#### *B- Ikasgela mailan*

- Aurkezpen egokia egin bere gelakideen aurrean: *“Ikasle honek X hizkuntza hitz egiten du eta euskara/gaztelania ikasten ari da ( ez euskara/gaztelera ez dakiena bezala.”*
- Ikasle berriaren izena ondo ahoskatzen ikasi.
- Munduko mapa bat eduki, denek jakin dezaten ikasle berrien jatorrizko lurraldeak non dauden eta kokatu ahal izateko.
- Ikasle bakoitzaren argazkia eduki eta fitxa bat antolatu: gaixo egon direnean, anai-arrebak izan dituztenean... esaldi berri bat idatzi ahal izateko.
- "Ongi etorri kaxa" sortu daiteke: aldizkariak, papera , arkatzak, etiketak, ordua ikasteko ordularia... sartuz. Ikasle berrientzat ezagunak diren gauzak sar daitezke: animaliak, landareak, janaria...
- Garrantzitsuak diren abisuak ondo ulertu dituela ziurtatu behar gara.
- Aniztasunari buruzko mezu positiboak eman: *“ikasle hauek ez dituzte "hizkuntza zailtasunak", beste hizkuntza baten jabe izateko ezaugarria baizik.”*
- Norbaitek (*alumno embajador*) gela erakuts diezaioke eta bide guztiak ondo ikasten dituela ziurtatu.
- Gelan galdera hau planteatu: *“Zu izango bazina iritsi berria, zer gustatuko litzaizuke besteek zuegatik egitea eta zer gustatuko litzaizuke besteekin egitea?”* Hau idazlan baten bidez landu daiteke, bera etorri aurretik eta ikaslea ezagutu ondoren.

#### **8. Baliabideak:**

Antolaketaren atal hau amaitzeko ezin aipatu kontutan hartu beharko ditugula dauden baliabideak, bai eskola berak dituenak eta bai herri mailan egon daitezkeenak .

Adibide gisa:

- Eskolarenak: Orokorrean eskola osoaren ardura da (Zuzendaritza, BP,

GIT...), ez pertsona batena soilik. Horregatik, denon inplikazioa eskatzen du, baita gurasoena ere. Guraso guztiekin lana egitea eskatzen du (guraso bileretan errealitate hori ulertzera bultzatu, familia horrekin izan ditzaketen harremanak bultzatu...). Eskolaz kanpoko antolatutako jarduerak, guraso elkarteak...

- Herriarenak: Gizarteratzeko, eskolaz kanpoko ekintzak eta taldeak kontuan hartu behar ditugu: liburutegia (ipuin kontalariak, bideoak...), kirola, APAk antolaturiko zine, jaialdi... aisialdiko taldeen laguntza, udaletxeko ongizate zerbitzua, kulturako elkarteen lana, Kultur etxea, ...Beste gai askotan bezala eskolak kanpora jo behar du bere harremanak zabaldu Guzti honek eskatzen digu, *Cáritas*, *Euskara Taldea*, *ONG*, *Gizarte Laguntzaileak*, eta abarrekin kontaktuan jartzea, beraiek zertan lagun dezaketen jakiteko (etxeko lanak...).

## ② CURRICULUMARI BEGIRA

*“Al analizar el aprendizaje de alumnos pequeños pertenecientes a minorías lingüísticas, debemos plantearnos dos cuestiones. En primer lugar, si su dificultad se debe o se acentúa por la manera en que se les pide que aprendan. Y en segundo lugar, si tiene dificultades con la lengua... o con el aprendizaje en si mismo.”<sup>9</sup>*

### 1. Hizkuntzaren inguruan hartu behar diren erabakiak:

a) Bere hizkuntza propioan zein laguntzak eman eta zertarako.

Honek irakasle elebiduna eskatuko luke, hemengo hizkuntza eta ikaslearen hizkuntza ezagutzen dituen. Jakin badakigu kasu askotan hau ezinezkoa egiten dela baina hau bideratzeko izan ditzakegun baliabideak eta prozedurak ezagutu beharko genituzke.

Lehenengo astetan, ikaslearen hizkuntza menderatzen duen irakasle bat bagenu hau gelan sartzea komenigarria ikusten da, ikasle berriak gelako dinamika hartu arte. Irakasle honek H1 eta H2 arteko zubia egingo luke; batetik, ikasleari hemengo hizkuntzan lagundu eta bestetik, irakasleei ikaslearen hizkuntzan zerbait erakutsiz (izena ondo ahoskatzen, ongi etorriak, kulturari buruzko zenbait datu...) gain, koordinazioa eta komunikazio bilerak ziurtatuko lituzke (T + GIT + Kontsultorea / orientatzailea).

Bestalde inoiz ez da erasotua sentitu behar euren hizkuntza eta kultura.. Alderantziz, euren ama hizkuntzan zein gaitasun linguistiko duen jakin, zein maila eta hau ahal den neurrian bultzatu eta indartu eskolan. Ama hizkuntza baliabide bat da eta hau zenbat eta hobeto menperatu, errazago egingo zaio bigarren hizkuntzaz jabetzea.

Bai etorkinen kasuan edo bigarren hizkuntzan eskolatuak ditugun kasuetan familiak H1 erabiltzera gonbidatu beharko genituzke, baldin eta eskolako hizkuntza ez badute etxean ondo menperatzen. Irizpide hau ama hizkuntza gaztelera duten

---

<sup>9</sup> Textos 23, *Educar a Rahlia* D.Martín ( 31. Orria)

ikasleentzat ere berdina litzateke, zenbat bider ikusi ditugu gurasoak euskara traketsen, hizkuntza biak nahastuz umeei mesede egiten diotelakoan.

b) Zein da ikasle hauen bigarren hizkuntza edo batzutan hirugarrena? Zein hizkuntzatan irakatsi? **Euskaraz? Gaztelera?** Zein eredutan sartu?

Galdera honen inguruan modu batera edo bestera jokatu arren barne barnean gure zalantzak izaten jarraitzen dugu eta komeni da, hauek, argitzea eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan dugun esperientziaz baliatzea.

Ezinbestekoa da jakitea zenbat denborarako etorri den, informazio honek baldintza baitezake modu batera edo bestera jokatzeko.

Hona hemen I. Vilak dioena honen inguruan:

*“...independientemente de seguir un programa de inmersión o un programa vehiculado en castellano, la infancia extracomunitaria desarrolla un conocimiento de la lengua que vehicula el programa que es más pobre que sus pares catalanahablantes, castellanohablantes o bilingües.....Por eso no compartimos el punto de vista de las personas que defienden que la escolarización de este sector de la infancia en las comunidades como Catalunya o el País Vasco debería ser en castellano....los maestros y maestras coinciden en afirmar que el dominio de la lengua que emplea la escuela es un factor determinante para el éxito o el fracaso escolar...”<sup>10</sup>*

Euskara ikasteko aukera bakarra edo bakarrenetakoa eskola izango du, gaztelera berriz eskolaz kanpo ere ikasteko erraztasun gehiago ditu. Gure zonaldearen ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuz, D ereduari sartzea izango litzateke aproposena. Euskaraz ikastea integrazio bidean jartzea dela iruditzen zaigu eta honek ez du suposatuko behar ez duenik erdararik ikasi behar, ez da gutxiago ere. Bestalde, bere eskolako lagunekin kasu gehienetan erdaraz arituko da.

Bigarren hezkuntzako ikasleen kasuan edo lehen hezkuntzako 3. Ziklokoan, Gelak dituen ezaugarriak ereduaren adinako garrantzia dute. Zenbait kasuetan B ereduak jarrera arazo gehien dituzten ikasleen gelak bihurtzen ari dira. Dena den, adin honetako ikasleen kasuan B ereduaren aukera aintzakotzat har genezake. Hala ere, esan

---

<sup>10</sup> I. Vila *Minorías culturales y escuela: una aproximación educativa*. Ed. GRAO

behar dugu, orokorrean nerabeek erraztasun handia izaten dutela bigarren hizkuntzaren jabekuntzan eta zer esanik ez gazteagoak direnean.

Ezin utzi jarri gabe, Derrigorrezko Curriculum Diseinuan dioen bezala, irakasle guztiok hizkuntza irakasleak garela eta hau areagotu egiten dela ikasle hauen kasuetan, beraz, irakasle talde osoaren betebeharra da ikasle hauen hizkuntza gaitasuna garatzea.

Beste edozein ikasleekin bezala baina are gehiago ikasle etorkinekin, arloetako irakasleek adostasun batera iritsi beharko lukete exigentzi mailetan, helburu komunetan, eskakizunetan, irakasle bakoitzak non jarri behar duen errefortzua, zertan jarri indarra bakoitzak...

HH eta LHn gelan integratzea eta hizkuntza ikastea errazagoa dela pentsatu da beti. Egia da haurtzaroan edo nerabe garaian (8 eta 14 urte bitartekoekin) bigarren hizkuntzaren jabekuntzak badituela desberdintasunak<sup>11</sup> baina kontutan hartu behar da, batez ere garai hauetan bai antolaketarako eta metodologiarako malgutasun gehiago izaten dutela bertako irakasleek. Hizkuntzaz jabetzeko edozein dela adina prozesua beti berdina da. DBHn ordea, egitura itxiagoak eta eduki finkoagoak izateak ikasle hauen zailtasunak areagotu egin ditzakete.

Hizkuntza tresna da baina ez hori bakarrik, garrantzi handiko faktore integratzailea ere. Hori dela eta, taldeko jarduerak banakako jarduerekin txandatzen dituen harrera plan egokia litzateke egoerarik hobereena. Hizkuntza erabiliz ikasten da. Hizkuntzaren bitartez ikasten dugu, berarekin gauzak eginez ikasten dugu.

*“ A conducir se aprende conduciendo si tienes al lado a alguien que te ayuda, que te enseña cosas que no sabes hacer solo. Una vez que has aprendido puedes conducir cualquier coche pues has aprendido las nociones básicas. Cuando aprendes una lengua ocurre lo mismo, aprendemos el Lenguaje con mayúsculas, aprendemos unos procedimientos universales” (I, Vila)<sup>12</sup>*

---

<sup>11</sup> *El proceso de adquisición de segundas lenguas en los niños*

<sup>12</sup> *Vila Durangoko hitzaldia*



Hizkuntzen irakaskuntzan, lehenetsua eman behar zaie integrazioari bideratuak dauden alderdiei eta ez hainbeste instrukzio mailakoei.

*“Es decir, que se primaran, una vez más, los aspectos integradores sobre los instruccionales.”<sup>13</sup>*

Gutxi gora behera 5 urte behar direnez hizkuntza akademikoa lortzeko, lehenengo urtetan hizkuntza apoio nabarmena eman bazaio ere, hurrengo urteetan ere apoio honek jarraitu behar du, baina indartze modura, curricular maila lortzeko.

c) Informeak zein hizkuntzatan emango zaizkie gurasoei? Hizkuntza Trataera.

Ikastetxe gehienetan euren ikastetxeko **Hizkuntza Trataeran** erabakiak hartuak izaten dira baina agian, orain arte ez zaizkigu honelako kasuak gertatu. Ikasle hauen informetan helburuen laburpena egitea eta gainera euren hizkuntzan ematerik balego komunikazioan asko aurreratuko genuke; honela guraso horiek euren hizkuntza baloratua ikusiko lukete. Beti ere, kasuan kasuko erabakia beharko genuke. Zenbait tokitan familiako beste kideren bat edo anaiaren batek egiten du itzultzaile lana; baina hau egokia den edo ez baloratu beharko litzateke.

## 2. Materialak:

Argi dago materialak egokitu egin behar direla edukiz eta formaz. Eta une horretan bizi den errealitatera egokitu. Izan ere, zenbait kasutan testu liburutan hainbat aurreiritzi oker azaltzen dira atzerriko kulturekiko.

*“...nuestros textos escolares, escritos desde una perspectiva etnocéntrica, abundan en implicaciones negativas o despectivas respecto a otros pueblos y otras culturas y que habría que podarlos de todas estas implicaciones.”<sup>14</sup>*

Bestalde, hizkuntza mailan ere egokitu beharra izango dute edukia ulertzea nahi badugu, dena den zer esan handia dauka testu liburuak nola erabiltzen diren eta zertarako, azken finean irakasteko metodologiak.

<sup>13</sup> Textos 23, *Enseñar a convivir, enseñar a comunicarse* I.Vila 29. orria

<sup>14</sup> Textos 23, *Lengua e inmigración* M. Siguan ( 19. Orria)

**× Gelan:**▪ Zer/ nola antolatu:

- Errutinak mantentzen saiatu.
- Talde malguak.
- Ordutegi egokituak.
- Planteatzen diren ekintzak ez diote gatazkarik sortu behar ikasleari.
- Ahal den neurrian ekintza multidisziplinarrak proposatu beharko lirateke.
- Jarrera eta motibazio baikorra lortzera bideratutako ekintzak proposatu.
- Hitz egiteko testuinguruak sortu, ikasleek beraien artean hitz egitea aukera emango dutenak.
- Errekurtso metodologiko ugari.
- Curriculum malgua, bakoitzaren ezagutzari egokitzen zaiona.
- Komunikazioa ziurtatzeko ahalik eta errekurtso gehien erabili: mimika, keinuak, irudiak...
- Ikas/irakastekok egoera esanguratsuak planteatu behar dira, beraientzat zentzua dutenak. Adibidez, HH txokoetan antolatua badago, ikasle berriaren zenbait aspektu kultural edo hizkuntza aspektuak azaltzen diren gaiak aukeratu daitezke txokoetan lantzeko; edo aspektu hauek kontuan hartu gela apaintzerakoan, muralak jartzerakoan... LH eta BHn ikaslea bere apendizaiaren protagonista bihurtu, bera izan dadila azalpenak egiten dituenak, *role-playing*...

▪ Kideen laguntzaz nola baliatu:

- Errekurtso ugari erabili: Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu dezala bere kideekin batera, telefonoen agenda....
- Jarrera baikorra landu beraiengan, kultura berri horrekiko mezu positiboak emanaz: bere kulturako pertsonai ospetsuei buruzko lanak egin, bibliografiak irakurri, ikusi...
- Etorkinen hizkuntza ezagutzen duen norbait badago, bere ondoan kokatu.
- Gelako kokapena asko zaindu: non eseri, noren ondoan... Kontuan hartu lagunak izan behar dituen ezaugarriak.

### 3. Metodologia:

Gure esperientzia bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan luzea da, urte mordoxka ari gara euskara irakasten eta maila honetan ikastetxeetan asko egina dugu.

Ekar dezagun gogora Uri Ruiz Bikandik *“Bigarren hizkuntza irakasteko eskolak egin dezakeena”* txosten baliagarri horretako aurkibidea:

- 1-Umeen ulermena errazteko, egoera erritualduak eskaini ikasketen hasieran.
- 2-Input interesgarria, umeak gogoko dituen zeregin eta gaiei lotuta.
- 3-input nahikoa eskaini.
- 4-Berbetan, berba eginez ikasten da.
- 5-Umearen lehen hizkuntza errespetatu. Euskaraz egin dezala bultzatu.
- 6-Espazioak eta denborak ikaslearen berbeta posible egiteko atondu.
- 7-Benetako komunikazioan trebatu: ikaslea posizio guztietan jarri.
- 8-Umeak diskurtso-mota guztietan eta solaskide diferenteekiko harremanetan jarri.
- 9-Hizkuntzaren ibilbidea eta errakuntzak.
- 10-Zuzenatsuna landu.
- 11-Gurasoen laguntza gureganatu: umeekin hitz egin dezatela bultzatu.

- ❑ Taldean integratzea izan behar luke lehenengo helburua, gero hizkuntzazkoak.
- ❑ Ikasleen ikaskuntza prozesua ahal den eta neurrian bakarka bultzatu.
- ❑ Ikasleek beraientzat zentzua duena egin behar dute eta norbaitekin egiteko gogoia izan behar dute.
- ❑ Ulermena landu behar dugu eta sorkuntza bultzatuko duen testuinguruak sortu.
- ❑ Trataera linguistiko berezia behar dute. Jabetu.
- ❑ Erantzukizun elkar banatua (talde pedagogikoa).
- ❑ Ikasleari buruz daukagun informazioa kontuan izanik (alfabetatua...), hizkuntza plangintza diseinatu berari bakarrik egokitua.
- ❑ Zein hizkuntzatan zer egin argitu.
- ❑ Hasieran ahozko komunikazioa lortu behar da, hau sendotu eta idatzira pasatzeko. Komunikazio kontestuak sortu behar dira: DBHn klase magistralak gutxitu eta talde txikietako lana, debateak, aurkezpenak... bultzatu.

- Komunikatzeko aukerak eskaini behar dizkie guk proposatutako ekintzak esate baterako antzerkiak.
- Materialak oso garrantzitsuak dira, kasu bakoitzari, taldetxoari egokituak. Gainera, lana egiteko material errealak izatea komeni zaie: irratia, egunkariak, aldizkariak, kaseteak, internet, argazkiak...

*"crear contextos para que ellos vean y sientan la necesidad de utilizar eso que nosotros les queremos decir".*

#### BIBLIIOGRAFIA:

- *Textos 23 Lenguas e inmigración*
- *Inmigración, Educación y Lengua propia* Ignasi Vila 1999
- *El proceso de adquisición de segundas lenguas.*
- *Cooperar en la escuela* Ed. Grao
- *Proyecto de investigación de M<sup>a</sup> Jose Eguskiza Garai 98-99*
- *Plurilingüismo y biculturalismo en un programa de inmersión* ARTICLES 8, Barcelona 1996
- *IDC Borrador interno.*
- *Bigarren hizkuntza irakasteko eskolak egin dezakeena* Uri Ruiz Bikandi Ordiziako 2000
- *Kulturarteko Hezkuntza Eskolan aniztasun etniko eta kulturalari hizkuntza erantzuna emateko orientabideak.* Eusko Jaurlaritza 198.
- *La escuela y los inmigrantes.* Miguel Siguan. Editorial Paidós.
- *Costruir la escuela intercultural.* Miguel Angel Essombra. Editorial Grao.